

Gaur, herri palestinarrek Nakbaren 73. urteurrena ospatzen du, arabierazko hondamendia, Israelgo Estatuaren okupazio, kolonizazio eta garbiketa etnikoaren politiken hasiera markatzen duena.

Egunotan ikusten ari gara garbiketa etniko horrek gaur egun ere jarraitzen duela. Ramadana hasi zenetik, Mezkiten zabalgunea eta Jerusalemgo Hiri Zaharra Israelgo armadak eta Poliziak setiatu ditu; joan den asteburuaz geroztik, 600 palestinar baino gehiago zauritu ditu Poliziaren eta militarren basakeriak. Erasoak Al Aqsako Mezquita santuaren barruan ere eman dira; Kolono israeldar armatuek jazarri, mehatxatu eta eraso egiten die herritar palestinarrei, askotan, polizia israeldarraren babespean. Jerusalemgo Sheikh Jarrah auzo palestinarrean 28tik gora familia etxegabetezko arriskuan daude. Etxegabetez hauen helburua sionismoaren hedapena Jerusalem eta Palestinan are gehiago zabaltzearen estrategiaren urrats bat gehiago besterik ez da. Bortizkeria hau Gazako Zerrendara ere zabaldu da. Azken egun hauetan gobernu sionista bonbardaketa etengabeak burutzen ari da 100 pertsona erail dituelarik, hauetatik, 20 haur palestinarrek lirateke.

Egunotan, Gazako Zerrendatik jaurtitako suziriaren helburu diren Askhelon, Holon eta Tel Aviv hiri eta kokagune israeldarrei buruz ere hitz egin digute albisteetan. Baina albiste horiek ez digute esaten Israelgo hiri edo kokaleku horietako asko 1948an Nakba garaian suntsitutako herri palestinarren gainean eraiki direla, eta Israelgo herritar horietako asko 1948an kanporatutako palestinar eta palestinarren etxe eta lurretan bizi direla. Bai, hori izan zen Nakba edo herri palestinarrentzako hondamendia, 500 herri palestinar baino gehiago suntsituta, mapatik desagertarazita, eta 800.000 pertsona baino gehiago kanporatuta eta desplazatuta. Gaur egun, 5 milioi errefuxiatu palestinar baino gehiago daude, eta Israelek ez die itzultzeko eskubiderik ematen, Nazio Batuen aitortpena izan arren.

Israel Apartheid estatu bat da. Ez dugu guk esaten. Duela gutxi Human Rights Watchek egindako txosten batek apartheid politikak, hau da, arraza-segregazioa aplikatzea eta gizateriaren aurkako krimen gisa tipifikatutako jazarpena gauzatzea leporatu dio Israeli. Apartheid erregimen horri mendebaldeko gobernuen eta enpresen konplizitateari esker eusten zaio, estatu horretako politikei zerbitzuak, azpiegiturak eta laguntza ekonomikoa ematen baitizkiete.

Zentzu horretan, Sheikh Jarrah auzoan gertatzen ari dena ezin da Jerusalemgo tranbiaren eraikuntzatik bereizi, bertan CAF euskal trenbide enpresak parte hartzen baitu. Tranbia honek Jerusalem eta Palestinako lurralde okupatuko legez kanpoko kokalekuak lotuko ditu, Sheikh Jarrah auzoa zeharkatzen duen proiektua, non, esan dugun bezala, Israelgo estatuak babesten dituen legez kanpoko kolonoak, auzo palestinarra etnikoki garbitzen saiatzen ari diren.

Horregatik guztiatik, euskal erakundeei eskatzen diegu bertan behera utz ditzatela Israelgo Estatuarekiko akordio ekonomiko, kultural, akademiko eta diplomatiko guztiak, nazioarteko zuzenbidea bete arte; bertan behera utz ditzatela Palestinaren okupaziotik irabaziak ateratzen ari diren enpresetan (CAF enpresa, esaterako) egindako inbertsio guztiak; Espainiako Gobernuari presio egin diezaiotela Juana Ruiz Sánchez langile humanitarioaren atxiloketa bidegabeari amaiera eman diezaion. Eta azkenik, euskal herritarrei dei egiten diegu, beste behin ere, herri palestinarrekiko elkartasuna areagotzeko.

Hoy el pueblo palestino conmemora el 73 aniversario de la Nakba, el desastre en árabe, y que marca el comienzo de las políticas de ocupación, colonización y limpieza étnica por parte del Estado de Israel.

Estos días estamos siendo testigos de que esa limpieza étnica ha continuado hasta el día de hoy. Desde el inicio del mes de Ramadán la Explanada de las Mezquitas y la Ciudad Vieja de Jerusalén están sitiadas por el ejército y la policía israelí; desde el pasado fin de semana más de 600 palestinos y palestinas han sido heridas por la brutalidad policial y militar, incluso en el interior de la Mezquita de Al Aqsa; colonos israelíes armados amenazan, hostigan, persiguen y atacan a la población palestina, la mayoría de veces con protección de la policía israelí; en el barrio de Sheikh Jarrah, más de 28 familias viven bajo la amenaza de ser desalojadas para entregar esas propiedades y tierras a colonos israelíes, en una estrategia más de judeizar la ciudad de Jerusalén; y esta violencia ha llegado hasta la Franja de Gaza, donde en dos días de bombardeos del ejército israelí han muerto más de 100 personas, entre las que se encuentran 20 niños y niñas palestinas.

Estos días en las noticias también nos hablan de ciudades y asentamientos israelíes como Ashkelon, Holon o Tel Aviv que están siendo objetivo de los cohetes lanzados desde la Franja de Gaza, cohetes que pocas veces llegan a impactar en territorio israelí. Pero esas noticias no nos cuentan que muchas de esas ciudades o asentamientos en Israel han sido construidos encima de pueblos palestinos destruidos durante la Nakba en 1948, y que muchos de esos ciudadanos israelíes viven en casas y propiedades de palestinos y palestinas expulsados en 1948. Sí, eso fue la Nakba o el desastre para el pueblo palestino, más de 500 pueblos palestinos destruidos, desaparecidos del mapa, y más de 800.000 personas expulsadas y desplazadas. Hoy son más de 5 millones de refugiados y refugiadas palestinas, a quienes Israel no les concede el derecho al retorno pese a tener el reconocimiento de Naciones Unidas.

Israel es un estado de Apartheid. No lo decimos nosotras. Recientemente un informe elaborado por Human Rights Watch acusa a Israel de aplicar políticas de apartheid (segregación racial) y persecución a los palestinos tipificadas como crímenes contra la humanidad. Y ese régimen de Apartheid se sostiene gracias a la complicidad de gobiernos occidentales y empresas, que proveen de servicios, infraestructuras y apoyo económico a las políticas de ese Estado.

En ese sentido, lo que está pasando en el barrio de Sheikh Jarrah no se puede separar de la construcción del tranvía en Jerusalén en la que está implicada la empresa de ferrocarriles vasca CAF. Este tranvía unirá Jerusalén con los asentamientos ilegales en territorio ocupado palestino, un proyecto que atraviesa el barrio de Sheikh Jarrah, donde como hemos dicho, colonos ilegales respaldados por el estado israelí, sus fuerzas militares y policiales, están intentando limpiar étnicamente el barrio palestino.

Por todo ello, exigimos a las instituciones vascas que cesen todos los acuerdos económicos, culturales, académicos y relaciones diplomáticas con el Estado de Israel hasta que cumpla con el derecho internacional; que cancelen todas las inversiones en las empresas que se están lucrando de la ocupación de Palestina, como la empresa CAF; que presionen al Gobierno español para que ponga fin a la injusta detención de la trabajadora humanitaria Juana Ruiz Sánchez. Y finalmente, llamamos a la ciudadanía vasca para que una vez más, intensifique la solidaridad con el pueblo palestino.